

# 7. GAIA: OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

Berak garrantzitsu bezela hartzen dituen puntuak atal honetan:

1. Zer diren oinarrizko eskubideak eta askatasunak
2. Babes mailak bereiztu eta jakin
3. babes maila bakoitzak dituen ondorioak jakin

## 1. OINARRIZKO ESKUBIDEEN KONTZEPTUA

- Oinarrizko eskubideak: Ordenamendu juridiko positiboak bermatzen dituen giza-eskubideak, normalean Konstituzioan jasoak, eta babes berezia eta indartua dutenak. Oinarrizko eskubideei buruz hitz egiten dugunean, giza eskubide batzuk positibo edo onuragarritzat jo izan direla esaten ari gara, hots, konstituzioei erantsi zaizkiela. Konstituzioek berme-neurri bereziak eman dizkiete eskubide horiei (batez ere, jurisdikzio-bermeak), Estatuari aurre egiteko. Ez dirudi beste ezberdintasunik zegoenik giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen artean. Azken finean, Botere Legegilearen eta Betearazlearen ahalmenak mugatzea da kontua, botere horiek gutxietsi ezin duten zenbait gizabanako-askatasunekiko begirunea agintzea; eta, edozein kasutan ere, askatasun horiek gutxiestekotan, zehatz aipatu beharko lirateke gutxiespen horiek, eta era mugatu eta iraunkorrean egin.
- Estatu konstituzional baten funtsezko elementu dira eta Konstituzioaren atal dogmatikoaren nukleo esentziala osatzen dute.
  - Bobbio: “Konstituzio batean herritar guzti guztiei, edozein baldintza dela ere, aitortzen zaizkien eskubideak” dira oinarrizko eskubide. Giza behar oinarrizko eta zentraleri erantzuna ematen diete.
- Zerk egiten du eskubide bat “oinarrizko”? ez dago irizpide unibertsalik. Oinarrizkoak dira zuzenbideak hala markatzen dituenak (tokian toki). Eta hori modu ezberdinetan egiten da:
  - Herrialde batzuetan Konstituzioan jasotzen dira, modu zabalean (Alemania, Portugal, Frantzia).
  - Beste batzuetan testu historikoetara remisio bat egiten da (Frantzia)
  - Beste batzuetan idatzi gabeko berme bezala jasotzen dira, beren zuzenbidea ohituran oinarritzen delako (Erresuma Batua).

- Iritzi korrante ezberdinak daude:
  - Iusnaturalista: pertsonak pertsona direlako dituzten eskubideak, bere duintasunari lotuak, eta Estatuaren aurrekoak. Kritika: Baloreetan geratzeko arriskua dago, eta gainera, historikoki konprobatu da eskubide hauen zenbaki eta edukia aldatu egin dela. Ez daude positibizatuak (ez daude idatziak) beraz askotan ezin dira aplikatu, hori da arriskua, gauza erlijioso edo moral bat bezala da, badakigu denakl gizakiak garela eta lo damos por hecho baina ez badago idatzita ezin da aplikatu
  - Eszeptizismoa: ez dago giza eskubide UNIBERTSALIK, mundu mailan aplikagarria denik.
  - Positibismoa: oinarrizko eskubide dira botereak hala izendatzen dituenak. Argia da metodo hau, baina orduan edozein boteredunek edozein modutan finka litzake. Guk jarraitzen duguna da, zuk zure konstituzioan idazten dituzu zure eskubideak, argi daude ze eskubide diran guztiontzat. Hau da seguruenena, idatziak daudelako eta argi dago zein aplikatu behar den herritarrekin  
  
Seguruena hiruetatik hartu behar. Positibizazioa beharrezkoa da.  
  
(Hortaz, funtsezkoa da botere publiko guztiei muga bezala eragitea eta hauek beren nukleo esentziala errespetatu behar izatea.)

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEEN IZAERA

Oinarrizko eskubideak zuzenbide-estatuaren barne-muineko elementu dira. Oinarrizko eskubideak aitortzen eta bermatzen diren lekuetan bakarrik izaten da Zuzenbide-estatu bat; eta Zuzenbideestatua ezarrita dagoen tokian bakarrik esan daiteke oinarrizko eskubideak eraginkorrak direla. Oinarrizko edo funtsezko esaten zaie gaur egungo sistema juridiko eta politikoa eraikitzeko oinarrizko elementuak direlako

Oinarrizko eskubideek izaera bikoitza dute. Alde batetik, helburu axiologiko bat betetzen dute. .

- **Subjetiboki**

Eskubide subjetoak dira, eta herritar batek estatuaren aurrean eta beste herritarren aurrean duen estatutu juridikoa konformatzen dute.

- 10.1 artikulua giza duintasunarekin eta pertsonalitatearen garapen askearekin lotzen ditu.

subjektiboki, gizabanakoen eskubideak dira. Ez, bakarrik esangura hertsian herritarren eskubideak direlako; baizik eta status juridiko edo izanaren esparru baten askatasuna bermatzen dutelako<sup>2</sup>

- **Objetiboki**

Herritarren eta indar politikoaren arteko oinarrizko akordioaren emaitza. Horregatik, izaera axiologikoa (gizarteko baloreak) dute ere, eta sistema konstituzional osoa informatu eta zilegitu egiten dute.

Beraz, o. e. T. a ez dira soilik estatuari edota beste herritarrei jarritako mugak, baizik eta, positiboki kontsideratuta, balore eta helburu multzo bat dira, giza-elkarbizitza eta estatu-botereen ekinbidea markatzen dutenak.

- Zuzenbide guztia hauek inspiraturik egon beharko

Objektiboki, giza elkarteen elkarbizitza oinarritzen duten balioak adierazten dituzte. Konstituziogilearen erabakiz, “erakunde juridiko eta politikoaren multzoa eratu behar duen balio-sistemaren adierazpen juridikoak dira” eskubide horiek, hau da, ordena juridikoaren eta gizarte bakearen oinarri, Konstituzioaren 10. artikuluan aditzera ematen denez. Hori dela-eta, Estatuak, estatu liberalean gertatzen ez zen bezala, ez du soilik aldarrikatzen eskubide horiek egikaritzeko aukera; izan ere, oinarrizko eskubideek ordezkatzeko dituzten balioen eta eskubideen eraginkortasuna bultzatzeko betebeharra ere hartzen du bere gain, nahiz eta herritarrek nahikari edo uzi subjektiborik aurkeztu ez. Oinarrizko eskubideek ematen dizkieten “eragin eta lerro artezkariei” heldu beharko die legegileak. Horrek garrantzi handia du, eskubideak babesteko baldintzarik izango ez balitz, hutsik geratuko lirateke oinarrizko eskubideak 28. Hala, oinarrizko eskubideak zaindu eta babestu ahal izateko, konstituzio-jurisprudentziak legegintza-garapen arruntaren beharra adierazten du.

### 3. OINARRIZKO ESKUBIDEEN EZAUGARRIAK

- Ezin ahaztu daiteke oinarrizko eskubideek sistema bat osatzen dutela, hiru ezaugarritan oinarriturik:
  - Interdependentzia: denek sustantzia bera konpartitzen dutelako: giza duintasunaren eta askatasunaren errespetua ordena sozial justu batean.

- Osagarritasuna: Batzuk besteengan apoiatzen dira. Ez dira konpartimendu estankoak. Adibidez: Adierazpen askatasuna => askatasun ideologikoarekin
- Berdintasun juridikoa (Paridad jurídica): ikuspegi tekniko-juridiko batetik, denek dute garrantzi maila bera.

#### 4. OINARRIZKO ESKUBIDEEN SAILKAPENA

- Pertsona fisikoaren eskubide eta askatasunak: hirugarren pertsona baten baimendu gabeko ezein ekintza debekatzen dute. Askatasun pertsonala, bizitza, intimitatea, ... IÑIGO CABACAS
- Pentsamendu askatasunak: sinesmen askatasuna, erlijio eta kultu askatasuna, adierazpen eta komunikazio askatasuna, katedra askatasuna, irakaste askatasuna, sorkuntza literario, zientifiko, artistiko eta teknikoak...  
EZ DU GALDETUKO: ZE BLOKETAN SARTUKO ZENUKE HAU?
- Eskubide eta askatasun kolektiboak edo zibiko-politikoak (eskubide zibil eta politikoak): hiritar bezala dagozkigunak dira: sufragio aktibo eta pasiboa, asoziazio, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea, eskatzeko eskubidea, herri ekimen legegilea...
- Askatasun eta eskubide ekonomiko-sozialak: tradizionalak direnak (jabetza, enpresa askatasuna), nola sozialismotik gehitutakoak (lan eskubidea, greba, sindikatu, etxebizitza duin, ingurumena, osasuna, gizarte segurantzak...).

#### 5. BILAKAERA HISTORIKOA

- **Oinarrizko eskubideen bermeen bilakaera:**
  - XVIII eta XIX mendeetan, Estatuak arlo pribatua babestu behar zuen (**eskubide negatiboak** ziren, soilik “ez zapaltzea”, “ez debekatzea”, “ez interbenitzea” exijitzen zutenak).
  - Eskubide politikoak zabalduz doaz ondoren; estatua demokratizatzen doa eta pertsona pribatuek arlo publikoan parte-hartzeko eskubidea dute (**eskubide positiboak**).
  - XX. mendean, demokrazia ez da soilik formala izango, berme material batzuk behar dira. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak agertuko dira.

## 6. O.E.T.A. AITORTZA KONSTITUZIONALAREN EZAUGARRIAK

- **OROKORREAN**

- Hitzaurrean jasotzen da. Baloreak, zuzenbide estatu demokratiko eta soziala. Giza eskubideak.
- 1.1 artikuluan: berretsi egiten da.
- I tituluan jasotzen dira oinarrizko eskubideak, zerrenda zabal batean, toki pribilegiatua emanaz eta bermeak aurreikusiz.
  - Zerrenda itxia ala irekia da? Zerrenda hain da zabala printzipioz pentsa litekeela konstituziogilearen intentzioa zerrenda itxia egitea zela. Osotasun bokazioa du.
    - Halere, 10.2 artikulua zabaltzeko aukera ematen du.

- **OINARRIZKO ESKUBIDEAK**

### **Lehen kapitulua: Tituluaren egitura formala**

- 10. Artikuluarekin hasten da. 10.1. iusnaturalismoaz blai, pertsonari inherentek direla esaten da, osotasun bokazioarekin, eta abar. 10.2. Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalarekin bat eginez interpretatu beharra ezartzen da.
- Lehen kapitulua (EK 11-13 artikulua), espainiarren eta atzerritarren estatusa mugatzen da. Naziotasuna, adin-nagusitasuna eta atzerritarren eskubideak.

Etxebideren formularioa betetzen badezu eta etxebizitza bat lortzeko baldintzak betetzen dituzunez etxe bat ematen dizute. Hori egiten da pertsonak bizitza duin bat izateko, duintasuna izateko.

10: DUINTASUNA

14: BERDINAK GARELA ETA EZIN DUGULA INOR DISKRIMINATU

53: ESKUBIDEAK NOLA BABESTEN DIREN ESATEN DU

### Bigarren kapitulua:

- 14 art. irekitzen da. Españolak berdinak dira legearen aurrean. Aurrebaldintza bat da. Ezin da diskriminatu.
- Ondoren bi sekzio:
  - Lehena: oinarrizko eskubide eta askatasunak (15-29)
  - Bigarrena: hiritarren eskubide eta betebeharrak (30-38)
- 53 artikulua araberara, babes maila ezberdina dute.

### Laugarren kapitulua: (53-54): eskubideen bermeaz ari da.

- Babes maila ezberdina.

### Bosgarren kapitulua: (55) eskubideen suspentsioa

- Ze orden jarraitzen da? Perez Royoren arabera, zirkulu kontzentrikoen arabera: pertsona / bizitza eta integritatea / eskubide pertsonalak (erlijio, ohore, mugitzeko...) / elkarbizitzako eskubide prepolitikoak (adierazpen, elkarte...) / eskubide politikoak (partehartzea, kargu publikoak...) / izaera soziala (hezkuntza eta sindikatzea)

<b>Oinarrizko eskubideen eraginkortasuna eta babesa</b>			
	<b>Eraginkortasuna</b>	<b>Auzitegi arruntetan</b>	<b>Auz. Konstituzionala</b>
<b>a) 14 eta 15-29</b>	Zuzenean aplikagarriak	Babes judizial <u>berezia</u>	Babes helegite konstituzionala (beste baliabideak agortu ondoren)
<b>b) 30-38</b>	Zuzenean aplikagarriak	Babes judizial arrunta	- 30. Artikuloko kontzientzi eragozpena: BHK - - Besteak : EZ
<b>c) 39-52</b>	Garatzen dituen lege bat behar dute	Garatzen dituen legerik balego: babes judizial arrunta	Zuzenean ez

- **BABES MAILAREN AZALPENA:**

- Art. 53.1 Arrunta (14-38 art)
  - 53.2 Handia (14-29 art)
  - 53.3 Baxua (39-52 art)
- Art. 14 EK + art. 53.2 EK = Maila Handia
- Art. 35 EK + art. 53.1 EK = Maila Arrunta

**1) Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak (15-29).** \*\*\*\* Kontuan izan Berdintasunaren klausulari ere talde honi dagokion babesaren emantena zaiola (14. art).

- Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea
- Askatasun ideologiko, erlijioso eta kulturala izateko eskubidea
- Askatasun eta segurtasun pertsonala izateko eskubidea
- Ohorea, intimitate eta norbere irudia babesteko eskubidea
- Adierazpen-askatasuna eta informazio-eskubidea
- Batzartzeko eskubidea
- Babes judiziala
- Hezkuntza eskubidea
- Greba eskubidea
- Askatasun sindikala

**2) Herritarren eskubideak eta betebeharrak (30-38. artikulua)**

- (1) soldadutza ez egiteko kontzientzia-eragozpen eskubidea
- (2) ezkontza-eskubidea
- (3) jabetza pribatua eta oinordetza izateko eskubidea
- (4) lan egiteko beharra eta eskubidea
- (5) *negoziazio kolektiborako eskubidea*

- **Espainiako Konstituzioa 29-52 art.**

- Segurantza-sistema atxikitzea
- Osasuna babesteko eskubidea.
- Kultura hedarazteko eta ikerketarako laguntza.
- Ingurumen egokia izateko eskubidea.
- Ondare historiko-artistikoa babestea.
- Etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea.
- Garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean gazteen parte-hartzea halbidetzeko konpromisoa.
- Adintsuen baliabide-ekonomikoak babestea.
- Kontsumitzaileak babestea.

- **OINARRIZKO ESKUBIDEEN BABESA**

<b>EK Art.</b>	<b><u>Bermeak EK-n Art.</u></b>	<b><u>Babes Maila EKn</u></b>	<b><u>Babes Judiziala Auzitegi arruntean</u></b>	<b><u>Auzitegi konstituzionala</u></b>
<b>14 eta 15-29</b>	53.1	<u>Normala/ Ertaina</u>	<u>arrunta</u>	<u>Konstituzio kontrako helegitea 161.1.a.</u>
<b>14 eta 15-29</b>	<b>53.2</b>	<u>Altua</u>	<u>berezia</u>	<u>Babes helegitea (recurso de amparo) 161.1.b</u>
<b>30-38</b>	53.1	<u>Normala/ ertaina</u>	<u>arrunta</u>	<u>Konstituzio kontrako helegitea 161.1.a</u>
<b>39-52</b>	53.3.	<u>Baxua</u>	<u>arrunta</u>	<u>ez</u>



- **Babes maila NORMALA/ERTAINA EK 53.1 art**

- 53. 1.- Titulu honen bigarren kapituluan (14-38 art) aitorturiko eskubide eta askatasunak lotesleak dira botere publiko guztientzat.
- Lege bidez bakarrik arautu ahal izango da (Reserva de ley) eskubide eta askatasun horien egikaritza;
- lege horrek, edozein kasutan, haien oinarrizko edukia errespetatu beharko du, eta eskubide eta askatasunok 161.1.a) artikuluan ezarri bezala babestuko dira.
- EK 14-38
- Berezitasunak:
  - Lege bidez bakarrik arautu ahal da (reserva de ley)
  - Lege horrek; oinarrizko edukina errespetatu beharko du
  - Eraginkortasuna (efectividad): zuzenean aplikagarria
  - Babesa: auzitegi arruntetan babes judizial arrunta eta hau agortzean AK
  - AK: bai
- 53. 1.- [...] eskubide eta askatasunok 161.1.a) artikuluan ezarri bezala babestuko dira.
- EK 161.1.a art: konstituzio-aurkakotasun errekurtsua
  - Lege eta lege bezala erabakitako edozer Konstituzioaren kontra dagoela erabakitzeko.

- **Babes maila ALTUENA EK 53. 2 art**

- 53. 2.- Herritar guztiek auzitegi arruntetan eskatu ahal dute 14. artikuluan eta II. kapituluko 1. atalean aitortutako askatasun eta eskubideen babesa;
- Horretarako, lehentasun- eta sumariotasunprintzipioetan oinarritutako prozedura erabiliko da, eta, hala denean, babes-errekurtsua ere jar daiteke Konstituzio Auzitegian.
- Ek 14-29
- **Berezitasunak**: suprababesa

- Auzitegi arruntetan prozedura bi:
    - Lehentasun printzipioan oinarritutako prozedura
    - Sumariotasun printzipioan oinarritutako prozedura
  - AK: Babes helegitea jar daiteke (beste baliabideak agortu ondoren) 161.1.b art.
  - Eraginkortasuna (efectividad): zuzenean aplikagarria
- **Babes maila BAXUA EK 53.3 art**
    - 53. 3.-Hirugarren kapituluaren aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horietan izango dituzte kontuan.
    - Jurisdikzio arruntetan halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea.
    - Ek 39-52

#### **HIRUGARREN KAPITULUA:**

- “Eskubide” ekonomiko sozial eta kulturalak lirateke. Berez, printzipio zuzentzaileak dira, politika sozial eta ekonomikoarenak. Legea, epaileak eta estatuaren jarduna “informatu” egiten dute, norabidetan. (39-52)
- **Babes maila BAXUA EK 53.3 art**
  - Berezitasunak:
    - Auzitegi arruntetan: garatzen dituen legerik balezko bakarrik
    - EK dagoen eskubidea ez da zuzenean babesten, hau garatzen duen legea baizik.
    - Eraginkortasuna: ez da zuzenean aplikagarria. Garatzen dituen lege bat behar dute.
    - AK: zuzenean ez.

## 6.1 O.E.T.A ERAGINKORTASUNA ETA MUGAK

### • Eraginkortasuna

- Zuzenki aplikagarria den zuzenbidea osatzen dute, botere publiko guztiak binkulatzen dituztelarik, 53.1 artikulua dioen moduan. Ez dira printzipio programatiko soilak, baizik eta eskubide/betebeharren berehalako jatorri.
  - Halere, eskubidea lege bidez konfiguratzea denean, posible da agindu konstituzionalak eduki minimoa izatea soilik.
  - Oinarrizko eskubideak beraz eskubide subjektiboak dira, eta botere publikoentzat berehalakoa eta zuzena den eragina dute.
- Ez dituzte soilik botere publikoak binkulatzen. Partikularren arteko harremanetan ere aplikagarriak dira.

### • Mugak

- Eskubide orok mugak ditu. 10.1 artikulua adibidez, “legearekiko errespetua eta besteen eskubideekiko errespetua” ezartzen ditu.
- Muga horiek espreski behar dute Konstituzioan jasoak egon, edo bestela ere, muga horiek baimenduak egon behar dute, inplizituki bada ere, Konstituzioan.
- Doktrinak muga intrinseko eta extrinsekoak aurreikusten ditu: Oinarrizko eskubideak, beste eskubide subjektiboen antzera, ez dira eskubide absolutuak. Hau da, ezin dira neurririk gabe erabili<sup>32</sup>. Nahiz eta oinarrizkotasan hori eduki, eskubide horien erabilera mugatuta dago baretik eta kanpotik:
  - Intrinsekoak (berezkoak): eskubidearen izaera bertatik eratortzen dira. eskubidearen edukiak berak inposatutako mugak dira. Eskubide bat bere mugetatik kanpo erabiltzeak eskubide horren erabilera bidegabekoa dakar. Adibidez: Katedra askatasuna irakasleek bere funtzioetan babesten dituzten hezkuntza sistema barruan, baina ez bestelako kasuetan. Horretarako adierazpen askatasuna legoke).
  - Extrinsekoak (kanpokoak): ordenamendu juridikoak berak ezarri dituenak. Ordenamenduak ere zenbait muga jartzen dizkio eskubide baten erabilerari: kanpo-mugak. Muga horietatik garrantzitsuenak Konstituzioak berak biltzen ditu: besteen eskubideek merezi duten begirunea (KEko 10.1.). Hau da: baten eskubidea beste baten eskubide legitimo edo legekoa hasten den lekuan bukatzen da.

- Adierazpen askatasunerako 20.4 artikulua: mugak ohore eskubidea, intimitatea, adingabekoen babesa...
  - 16.1 Erljio/ideologi askatasunerako ordena publikoa.
- Edozein kasu, ezarritako mugapenek ere mugak dituzte:
    - Eskubidearen eduki esentzialarekiko errespetua (53.1 CE).
    - Proporzionaltasuna. Auzitegi konstituzionalak:
      - Ezin dute mugapenek eskubidea oztopatu arrazoizkoa dena baino gehiago.
      - Razionalak, egokiak eta arrazoizkoak izen behar dute (rationales, adecuadas y razonables).
    - Proporzionaltasuna ezartzen zaion pertsonaren egoerarekiko.

## **6.2 O.E.T.A-EN INTERPRETAZIOA**

- Ezin da bistatik galdu ordenamendu juridikoan paper zentrala dutela.
- Arau guztiak interpretatu behar dira Konstituzioan jasotakoaren arabera, baina bereziki, oinarritzko eskubide eta askatasunei eragiten dietenak (Auzitegi Konstituzionalaren arabera).
- Edozein kasu, interpretazioan zalantza badago, beti eskubideari indar gehien ematen dion interpretazioa lehenetsi behar da.
- Legegileak ezartzen dituen mugapenak beti ikuspegi murriztuarekin interpretatu behar dira.
- 10.1 artikulua ezarritakoarekin bat eginez interpretatu behar da.
- 10.2 erresepetatuz. Giza eskubideak arautzen dituzten nazioarteko tratatuen arabera interpretatu behar da.

## 6.3 O.E.T.A-REN TITULARTASUNA ETA ERABILERA BALDINTZAK

- **Sarrera**

- O.E.T.A., eta Konstituzioak jasotzen dituen bermeak, ez dira herritar guztientzat berdinak.
- Pertsonalitate juridikoa: subjektu baten ahalmena eskubide eta betebeharrak izateko. Berez pertsona guztiek dute.
- Eskubideak erabiltzeko ahalmena (capacidad de obrar): gauza bat da “orokorrean” eskubide eta betebeharrak izateko ahalmena, eta beste bat, “zehatzean” egoera konkretu batean eskubide horiek erabiltzeko ahalmena izatea.
- Beraz ezberdindu behar:
  - Eskubide osoen titularrak diren herritarrak (pertsonalitate juridiko osoa) eta mugapenak dituztenak (atzeritarrak, eskubide politikoeziko).
  - Eskubide osoen titular izanik, bere erabilerako mugak dituztenak, eta bitartekari bat behar dutenak: adingabekoak, inkapazitatatuak, inhabilitatuak, eta abar.
- Konstituzioak hiru datu ezberdintzen ditu:
  - Naziotasuna 11 art
  - Adin nagusitasuna 12 art
  - Atzerriartasuna 13 art.

- **Pertsona juridikoen eskubideen titulartasuna**

- Berez giza eskubideak gizakienak dira, bere duintasunari lotutakoak. Orduan, pertsona juridikoek badituzte?
- Halere, berez ez dago eragozpenik, nahiz eta pertsona juridikoak, bere izaeragatik ezin dira eskubide guztien titular izan.
  - Adibidez: Bizitza eta integritate fisikoa, hezkuntza, sufragio aktibo eta pasiboa...
- Hortik aurrera, babes judiziala, asoziazio askatasuna, askatasun ideologikoa eta erlijiosoa...
- Gainera, kasu batzuetan espresuki aitortzen da:

- 16: norbanako eta komunitateen ideologi, erlijio eta kultu askatasuna
  - 20.3: komunikabideekiko sarrera signifkatiboak diren talde sozial eta politikoena.
  - 27.6: ikastetxeak sortzek askatasuna, pertsona fisiko eta juridikoena.
  - 27.10: unibertsitateen autonomia.
  - 28.1: sindikatuen eskubidea konfederazioak sortzeko, edota nazioarteko erakundeak sortzeko.
- Auzitegi Konstituzioanalak: eskubideen izaerak ahalmentzen duen neurrian, pertsona juridiko nazionalak eskubideen titular dira.

- **Adin nagusitasuna**

Konstituzioak berak esaten du (12. art) oinarrizko eskubideak erabiltzeko baldintza bat dela adin-nagusitasuna. Adin Nagusitasuna 18 urterekin lortzen da eta, zuzenbidearen arabera, jarduteko gaitasun osoa eskuratzeko eskakizuna da. Zenbait egoeratan, gainera, pertsona konkretu bati/batzuei eskubide hauen erabilpena mugatu dakieke, eta horri eskubideen ahalgabetzea esaten zaio.

- Eskubideak erabiltzeko ahalmen osoa, noiz lortzen da? Konstituzioaren arabera 18 urterekin. 12 art.
  - Beraz, adin nagusitasuna eskubideez gozatzeko baldintza da.
- Historiak erakusten du adin hau murrizten ari dela.
- Halere, batzuetan, eskubideak erabiltzeko ahalmena lehenago onartzen da:
  - Testamentua: 14 urte, KZ 663.
  - Ezkontza: 14 urte (adingabeko emanzipatuak). 46 eta 48KZ.
  - Erantzukizun penala: 14 urtetik aurrera (Ley Penal del Menor).

- **Naziotasuna**

- Estatu batek duen herria osatzen duten herritarren eta Estatuaren zein ordenamenduaren arteko lotura adierazten du.
- Naziotasuna beharrezko baldintza da legeak eta Konstituzioak ezartzen dituen eskubide eta askatasun guztiak ematen dituen hiritar statusa lortzeko.
- Beraz, beharrezko baldintza da mugarik gabe eskubideen jabe izateko eta horiek mugapenik gabe erabiltzeko.
- Atzerritarrek, nagusiki, partehartze politikorako eskubideak dituzte mugatuak. Eta baita kargu eta funtzio publikoetarako sarrera.
- Konstituzioak: 11 art.
- Baimendua dago naziotasun bikoitza.

- **Atzerritartasuna**

- Atzerritarrak dira naziotasun espainolik ez dutenak.
- Konstituzioan, 13 art: 13.1: atzerritarrak eskubideak gozatuko dituzte, lege eta tratatuen arabera. 13.2: ez dute eskubide politikorik, salbu, udal hauteskundeetarako sufragio aktibo eta pasiboa.
- 10.2: giza eskubideen arabera interpretazioa.
- Auzitegi Konstituzionala:
  - Bazterketa bakarra eskubide politikoak
  - Eduki esentziala errespetatu behar.
  - Badaude eskubide batzuk guztionak direnak. Pertsonenak direnak, ez hiritarrenak. Giza duintasunetik eratortzen direnak dira.
  - Komunitarioek askatasun bereziak: sufragio aktibo eta pasiboa, zirkulatzeko askatasuna, erresidentzia askatasuna...

- **Extradizioa eta babes eskaera 13.3 art. (ez da garrantzitsua)**
  - **Extradizioa:** tratatu eta legeen arabera, eta beti ere erreziprozitate printzipioa errespetatuz. Delitu politikoak salbuetsita daude (terrorismoa ez)
  - **Estradizioa:** estatu batek beste baten eskuetan pertsona bat uztea, epaitua izateko hala zigorra betetzeko
  - Europar batasunean euroagindua dago. Azkarragoa.



## 7.2 GAIA: ESTATU SOZIALA

### Laburbildus: Estatu modernoa – zuzenbide estatua

- Estatu modernoa estatu absolutuaren forma politikoarekin jaio zen. Gero estatu liberal bezala konfiguratu eta gaur egun estatu sozial bezala agertzen da.
  - Azken biak zuzenbide estatu dira, lehena ez.
  - Zuzenbide estatua: estatuak muga juridikoak ditu (legalitate prinzipioa). Boterea ez da diskrepzionala. Aurretik onartutako legeetan oinarritu behar da.



### 1. ESTATU LIBERALAREN KRISIA

- Estatu liberalaren aldiak: estatu moderno (absolutuaren) agerpena / iraultza liberalak / estatu liberalaren sorrera / estatu liberalaren demokratizazioa.
- Agerpen horren faseak:
  - **1. Fasea:** agerpen fasea, XVIII. eta XIX. Mendeko iraultza burgesak.
  - **2. Fasea:** estatu konstituzionalaren sendotzea zuzenbide estatu bezala (XIX. eta XX. mendeetan).
  - **3. Fasea:**
    - Konstituzionalismoaren demokratizazioa eta estatu demokratikoak. XIX. mendeko mugimendu demokratizatzaileak
    - XX. mendean sufragio unibertsalaren hedapena.
  - **4. Fasea:** estatu konstituzionala estatu sozial bezala (2. Mundu gerraren ostean).

- XIX. mendean zehar, zuzenbide-estatuak<sup>1</sup> hedatu ziren forma politiko gisa, Konstituzioen Aroa deituriko garaian. Legearen nagusitasuna, botere-banaketa eta oinarrizko eskubideen babesa izan ziren estatu forma haien ezaugarriak eta, funtsean, estatu garaikide askorenak ere. XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, estatu liberal klasiko haiek hobetu egin ziren, elementu demokratikoak garatzearekin bat; eta, bereziki, estatu sozialaren irizpideak hartu zituztenetik aurrera, baina betiere hasiera-hasierako ezaugarriak aldatu gabe: batasuna + instituzionalizazioa. Gaur egun, zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa da Europan hedatuena dagoen estatu forma, herri garatuenetan batez ere; zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa da eta guk II. gaian aztertuko dugu sakonago.
  
- Estatu liberaletik estatu sozialerako bilakaera:
  - **Ikuspegi demokratikotik:** Mugimendu demokratikoak krisia eragiten dio demokratikoa ez zen estatu liberalari.
  - **Ikuspegi sozialetik:** estatuaren abstentzionismoaren ereduaren bukaera. Gizarte industrial modernoak eskakizun berriak ditu. Merkatuak soilik ez ditu krisiak gainditzen...
  - **Nazioarteko ikuspegitik:** estatu liberalak ez ditu bermatzen estatuen arteko harreman baketsuak.
  
- Egoera horren aurrean hiru estatu mota agertuko dira.
  - Faxista (haustura): alderdi bakarreko estatu totalitarioa, antiliberala eta antisozialista. Askatasun demokratikoen eta konstituzio bermeen ezabapena. Italia eta Alemania.
  - Komunista (haustura): ideologia marxista-leninista; ekonomiaren planifikazio zentralizatua; zentralismo demokratikoa (boterearen zentralizazioa, kargu rebokableak, kritika eta autokritika askatasuna, redición de cuentas, goikoen erabaki lotesleak/disziplina) eta erregio federalismoa (autodeterminazio eskubidea).
  - Soziala (erreforma): estatu liberalaren krisia gainditzeko erreforma bezala.

## 2. ESTATU SOZIALAREN OINARRIZKO PRINTZIOAK

- **Definizioa:** estatuaren bertsio modernizatu bat da, jatorri liberala duena, kapitalista motako egitura ekonomiko eta soziala duena, eta I eta II MG artean osatzen joan zena.

Estatu sozialak honako adiera hau du: Estatuak hartzen du zenbait ondasun sozialen kudeatzaile- eta administrazio- izaera, gizartean sortzen diren ezberdintasun sozial eta ekonomikoak zuzentzeko asmoz. Ezberdintasun sozial eta ekonomikoen zuzentze hori, zerbitzu eta prestazio batzuk ziurtatuz egiten du Estatuak. Horien bitartez, gutxieneko bizi-maila bermatzen die herritarrei.

- **Izen ezberdinak:**
  - Estatu liberal-demokratiko aurreratua
  - Ongizate estatua
  - Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa...
- **Aurrekariak (1920-1930):**
  - UKko gizarte erreformak;
  - AEBetako **New Deal**: **New Deal** ingelesez, **Itun Berria** euskaraz, Amerikako Estatu Batuetan egindako programa batzuk izan ziren. Plangintza zabal baten barruko programa gehienak 1933 eta 1938urteen tartean egin ziren nahiz eta gutxi batzuk beranduago egin. Helburuak 1929ko kraxak ekarri zituen ondorio txarrak konpontzeak ziren. Hiru helburutan laburbildu daiteke: Langabezia eta pobreziaekin amaitu, ekonomia hobetu eta sistema finantzieroa hobetu berriro 1929ko gertatu ez zedin.  
  
Mundu kapitalistan krisiaren aurkako politika nagusia New Deal delakoa (banaketa berria edo itun berria) izan zen Amerikako Estatu Batuetan, eta hori Franklin Delano Roosevelt presidentek sustatu zuen. Printzipio hori aplikatzean, urratu egin ziren kapitalismo klasikoaren funtsezko alderdi batzuk. Baita ere deflazioarekin amaitzea lortu zuten. (etxeon liburun ta internetetik hartu det)
  - II Errepublika Espainiar estatuan

- **Hedapena:** II MG ostean. II. Mundu Gerraren ondoren onetsitako konstituzioek espresuki aurreikusten dute, hain zuzen, Estatuak betekizun garrantzitsua duela ordena ekonomiko eta soziala eratzerakoan. II. Mundu Gerra bukatu ondoren, Espainian oraindik sistema autoritario bat zegoen ezarrita, eta, hori dela-eta, estatu sozialaren isla konstituzionalak 1978ra arte itxaron behar izan zuen, hau da, konstituzio-sistema berriro ezarri zuten arte.

- **Ezaugarriak: (garrantzitsua)**

- Ekonomian esku-hartzea
- Gizarte laguntzak eta zerbitzuak
- Ekonomia mistoa
- Eskubide sozialen eskagarritasun juridikoa
- Ordezkaritza demokrazia

Herritarren bizi-baldintzak hobetu eta erraztera emana dagoen Estatuaren jardura XIX. mendean agertu zen lehen aldiz: prestazioak. Legeria arruntean aurki daitezke adibideak, esate baterako, hezkuntza edota gizarte-segurantza. Mende horren bukaerarako Europako estatu gehienek ezarria zuten (1) doako oinarrizko hezkuntza-sistema bat. Gizartesezurantzari dagokionez, XIX. eta XX. mendeetan (2) aseguru mistoen sistemak ezarri ziren, langileen, enpresarien eta estatuaren ekarpenari esker, hasiera batean; eta, geroago, estatuak finantzaturik.

### 3. ESTATU SOZIALAREN KRISIA (probable garrantzitsua)

- Petrolioaren krisia + politika neoliberalak. Neoliberalismoa Vs demokrazia (70-80. hamarkadan). Merkatua agintzen hasten da zertan gastatu behar den dirua, beraz, demokrazia (parlamentuan hartzen diren erabakiak) ahuldu egiten da
- Ordezkatze erakundeen (parlamentuaren) ahultasuna, botere exekutiboaren indartzea eta interes talde (bankuen) protagonismoa.
- Eskubide sozialen murrizketa eta politikaren judizializazioa. Justizia ez da politikoa izan behar, independeta izan behar du.

#### 4. ESTATU SOZIALA 1978KO KONSTITUZIOAN (super garrantzitsua)

- Konstituzioa politikoa izateaz aparte, erabaki ekonomiko eta sozialak hartzen ditu.
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen konfigurazioa (eta konfigurazio horren garapena): EK 39-55 art.
- Berdintasun materialaren (EK 9.2) printzipioa, berdintasun formalaren (EK 14) osagai eta zuzenketa bezala.
- Konstituzio “ekonomikoak”
  - Askatasun ekonomiko klasikoak bermatzen ditu.
  - Esku-hartze publikoa bizitza ekonomikoan bermatzen du.
  - Ekonomian sektore publikoa egotea ahalbidetzen du.
  - Ekonomi-plangintza aurreikusten du.
- 4 bloke daude
  - Izaera orokorra duten zerbitzu publikoek antolatzen dituzten eskubideak.
  - Lan harremanak konfiguratzeko dituzten eskubideak.
  - Bazterketa egoeran dauden talde sozialen eskubideak.
  - Ingurumena babesteko eskubideak.
- Eskubide sozialen eraginkortasun maila ez da bera.

**ONARRIZKO ESKUBIDEEN BABESA**

<b>Oinarrizko eskubideen eraginkortasuna eta babesa</b>			
	<b>Eraginkortasuna</b>	<b>Auzitegi arruntetan</b>	<b>Auz. Konstituzionala</b>
<b>a) 14 eta 15-29</b>	Zuzenean aplikagarriak	Babes judizial <u>berezia</u>	Babes helegite konstituzionala (beste baliabideak agortu ondoren)
<b>b) 30-38</b>	Zuzenean aplikagarriak	Babes judizial arrunta	- 30. Artikuloko kontzientzi eragozpena: BHK - - Besteak : EZ
<b>c) 39-52</b>	Garatzen dituen lege bat behar dute	Garatzen dituen legerik balego: babes judizial arrunta	Zuzenean ez

<b>EK Art.</b>	<b>Bermeak EK-n Art.</b>	<b>Babes Maila EKn</b>	<b>Babes Judiziala Auzitegi arruntean</b>	<b>Auzitegi konstituzionala</b>
<b>14 eta 15-29</b>	53.1	Normala/ Ertaina	arrunta	Konstituzio kontrako helegitea 161.1.a.
<b>14 eta 15-29</b>	<b>53.2</b>	Altua	berezia	Babes helegitea (recurso de amparo) 161.1.b
<b>30-38</b>	53.1	Normala/ ertaina	arrunta	Konstituzio kontrako helegitea 161.1.a
<b>39-52</b>	53.3.	Baxua	arrunta	ez

## Babes mailak garrantzitsuak

### Babes maila **ALTUA EK 53.2 art**

- 53.2. Herritar guztiek auzitegi arruntetan eskatu ahal dute 14. artikuluan eta II. kapituluko 1. atalean aitortutako askatasun eta eskubideen babesa (EK 14-29 art).
- Horretarako, AUZITEGI ARRUNTETAN lehentasun- eta sumariotasun printzipioetan oinarritutako prozedura berezia erabiliko da, eta, hala denean, AK-n babes-errekurtsoa ere jar daiteke.
- EK 14-29
- Babes-maila judiziala ALTUA dutenak:
  - **28. art.:** grebarakoa eta sindikatueta kide izateko askatasuna
    - 1.- Guztiek dute eskubidea askatasunez sindikatuen kide izateko.
    - 2.- Langileen grebarako eskubidea onartzen da euren interesak defendatzeko.
  - **27. art.: Hezkuntza:** Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza-askatasuna onartzen da.

### Babes maila **NORMALA/ERTAINA EK 53. 1 art**

53.1. Titulu honen bigarren kapitulu (EK 14-38 art) aitorturiko eskubide eta askatasunak lotesleak dira botere publiko guztientzat.

- Lege bidez bakarrik arautu ahalizango da eskubide eta askatasun horien egikaritzea
- Lege horrek, edozein kasutan, haien oinarritzko edukia errespetatu behar du
- Eskubide eta askatasunok 161.1.a) artikuluan ezarri bezala babestuko dira.
- EK 14-38
- Bigarren babes-maila dutenak:

- **33. art.: jabetza:** Jabetza pribaturako eta oinordetzarako eskubideak onartzen dira.
- **38. art.:** Enpresa-askatasuna merkatu-ekonomiaren esparruan onartzen da.
- **35. art.:** Espainiar guztiek lan egiteko betebeharra eta lan egiteko eskubidea dituzte.
- **37. art.:** langile eta enpresaburuen ordezkarien arteko lan-negoiazio kolektiborako eskubidea, hitzarmen kolektiboak egitekoa eta gatazka kolektiboa

### **Babes maila BAXUA EK 53. 3 art**

- 53. 3.-Hirugarren kapituluaren aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horietan izango dituzte kontuan. Jurisdikzio arruntan halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea.
- Ek 39-52
  - Segurantzaren sistema atxikitzea
  - Osasuna babesteko eskubidea.
  - Kultura hedatze eta ikerketarako laguntza.
  - Ingurumen egokia izateko eskubidea.
  - Ondare historiko-artistikoa babestea.
  - Etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea.
  - Garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean gazteen parte-hartzea ahalbidetzeko konpromisoa.
  - Adintsuen baliabide-ekonomikoak babestea.
  - Kontsumitzaileak babestea.
- **Hirugarren babes-maila dutenak:**
  - Gizarte-segurantzaren —41. art.—
  - Osasuna —43. art. —
  - Kultura, ikerkuntza —44. —



- Ingurumenaren babesa —45. art.—
- Etxebizitza duinerakoa —47. art. —

### **MUGA? 135. artikulua: Aurrekontuzko egonkortasuna**

#### **zorrei eta interesei lehentasuna**

- Aurrekontuen muga: EK 135 art

Kontuz!! Artikulu hau 2011. urtean aldatu zen. Bertsio zaharrak bi artikulua ditu eta berriak 6.

- Gobernuak legezko baimena izan behar du, Herri Zorra jaulki edo kreditua bere gain hartzeko.
- Estatuko Herri Zorraren kapitala eta korrituak ordaintzeko kredituak sortu badira, beti ulertuko da kreditu horiek aurrekontuen gastu-orrian sartzen direla; kredituok ezin izango dira zuzendu edo aldatu, jaulkipen-legearen baldintzak bete ezean.

## Welfare State Regimes (Sping-Anderssen Goesta)

Model	Countries*	Ideology	Key features of socioeconomic integration
<b>Scandinavian</b>	Sweden, Finland, Denmark (the Netherlands, Norway)	Social Democratic	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aims to realize social rights for all its citizens</li> <li>• Promotes equality of high social standards</li> <li>• Social benefits are universal, i.e. independent of class and status</li> <li>• Strong support for working mothers</li> </ul>
<b>Continental</b>	Germany, Austria (France, Belgium, Luxembourg, Switzerland)	Conservative	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Granting social rights considers existing class and status differentials (with a focus on work-related, insurance-based benefits)</li> <li>• Redistributive effects are limited</li> <li>• Social policies aim to preserve traditional family structures (limits emancipation of women)</li> </ul>
<b>Anglo-Saxon</b>	UK (Ireland)	Liberal	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dominated by market logic, i.e. the state encourages the private provision of welfare</li> <li>• Social benefits are modest, often means tested and stigmatizing</li> </ul>
<b>Mediterranean</b>	Spain, Portugal, Greece (Italy, Cyprus, Malta)	Mixed	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fragmented and 'clientistic' support focusing on income maintenance (pensions)</li> <li>• Still under development, making older systems of social support (family, church) still necessary</li> </ul>
<b>Transitional</b>	New EU Members from Central-Eastern Europe	Developing	<ul style="list-style-type: none"> <li>• New social policies are developing, but with considerable variations</li> </ul>